



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **IRAGARKIA**

Azkoitiko Udalaren erabakia: Azkoitiko Udaleko plantillan dagoen eta hutsik geratu den Ikastolako Atezainaren plaza lehiaketa-oposaketa irekiaren bidez betetzeko oinarriak onartzea.

Alkatetzak 2010eko ekainaren 25ean emandako Dekretuan, hutsik geratu den Ikastolako Atezain lanpostua lehiaketa-oposaketa irekiaren bidez betetzeko oinarriak onartzea eta dagokion deialdia egitea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio bideari.

Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsua aurkez dezake azaroaren 29ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Alkatetzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

Bestela, erabaki hau berraztertzeke eskatu ordez, edo berraztertzeke errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak SEI HILABETEKO epea izango du, errekurtsua tartekatu zuen datatik kontatzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko.

Azkoitian, 2010eko ekainaren 25ean.

## **AZKOITIKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDAN HUTSIK GELDITU DEN XABIER MUNIBE IKASTOLAKO ATEZAINAREN LANPOSTUA BETETZEKO PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

### **Lehena.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Oinarri hauen bidez, lanaldi osoko eta lan kontratu finkoa izango duen atezain bat aukeratzeko oposaketa-lehiaketa prozesua arautzen da. Hain zuzen ere, erreleboko lan-hitzarmena izan duen aldi baterako kontratuaren amaiera dela eta, Ikastolako atezainak derrigorrezko erretiroko adina bete duenez, hau da 65 urte, Xabier Munibe Ikastolako atezain lanpostua hutsik gelditu da. Beraz oinarri hauen bidez lanpostu hau hornitzeko aukeraketa prozesua zabalduko da.

Hautatze-jardunbidea, oposaketa lehiaketa izango da, oinarri hauek arautuko dutelarik.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lanpostua betetakoan, ariketa baztertzailak gainditu dituzten gainerako izangaiekin osatutako zerrenda, lanpostu berdinetako edo antzekoetako aldi baterako beharrak betetzeko erabiliko da, horretarako ezarriko diren irizpideei jarraiki. Lanpoltsaren iraupena, hiru urtekoa izango da, hautatze-jardunbidea amaitzen denetik kontatzen hasita.

### **Bigarrena.- POSTUAREN EZAUGARRIAK.**

Hornituko den lanpostua, Azkoitiko udaleko plantilako hutsik gelditu den ikastolako atezain lanpostua izango da. Lansaioa %100ekoa izango da, Azkoitiko udalak finkaturiko ordutegia izango duelarik. Lanpostua, lan itunpekoa izango da, eta berari dagozkion ordainsariak, C2 taldea eta 12. Destino-Osagarriarekin parekatuko dira. Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, 2.a dagokio.

### **Hirugarrena.- LANPOSTUAREN FUNTZIOAK.**

Sailaren arduradunaren mendean, eskola zaintzeaz, babesteaz eta mantentzeaz arduratzea.

#### **Eraikina zaintzea:**

- Eskola irekitzea eta ixtea, eta erabiltzeko prestatzea: argiak, berogailuak, segurtasun gailuak eta abar piztu, erregulatu eta itzaltzea.
- Esleitutako eraikinak eta instalazioak zaintzea, bereziki sarrerak eta irteerak, eta bertako azpiegiturak egoera onean eta erabiltzeko moduan daudela zaintzea.

#### **Oinarrizko mantentze-lanak:**

- Eraikinaren eta instalazioen oinarrizko mantentze- eta zainketa-lanak egitea (altzariak konpontzea eta jartzea, haur-parkea mantentzea, berogailuaren instalazioa mantentzea –erradiadoreak eta hodiak–, zurgintza-, iturgintza-, elektrizitate-, margotze-lanak... egitea), eta saileko arduradunari edo mantentze-lanak egiten dituzten kanpoko enpresei eskatzea handiagoak diren matxura edo hondamenak konpontzeko.
- Altzairuak, tresneria, agiriak eta abar lekualdatzea eta jartzea.
- Beharrezko materialez jabetzeaz arduratzea, ezarritako prozeduraren arabera.
- Zentroko materiala konpontzen laguntzea: plastifikatzailea, zizaila, grapagailuak, etab.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Ezarritako lan-programa eta zerbitzuaren beharrak betetzeko baldintzetara egokitzea (aldian-aldian, eta ordutegi malgutasunari dagokionez).
- Laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzea.

### **Bestelako ardurak**

- Lanpostuari dagokion eginkizunari buruzko gaietan herritarrei erantzutea, informatzea eta orientabideak ematea.
- Sailaren hobekuntza bultzatzea eta horretarako laguntza ematea: hobekuntza-ekintzak eta aldaketak proposatzea.
- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
- Zenbait egoera direla-eta (zereginen pilaketa, huts-egiteak, gaixotasunak), sailari atxikiriko beste langileekin lankidetzan aritzea.
- Lankideei aholkua eta laguntza ematea, bere ezagutzengatik eta/edo esperientziagatik lanbide-trebetasun handiago duten lanetan.
- Aipatutako lanez gain, beste lan batzuk egitea: helburuak betetzeko agintzen zaizkionak eta bere lanbide-gaitasun eta -trebeziekin bat datozenak, bai eta legeak hala aginduta egin behar dituenak ere, beti ere sailaren arduradunaren erantzukizunaren pean.

### **Laugarrena.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK.**

Aukeraketa prozesu honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea edo Espainian legezko bizilekua duen atzerritarra izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Lege apirilaren 12koak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber hartu ahalko dute parte espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, haien dependenziadunak badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean Graduatua tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordaindurik edukitzea. Halaber, titulu honen parekideak diren bestelako titulazioak onartuak izango dira.
- d) Lanpostuen berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Honako hau dagokion unean egiaztatu beharko du proposatutako hautagaiak.
- e) Auzibide diziplinario bidez zerbitzutik apartatua ez egotea, Administrazio Publikoari edo konstituzio-organuei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren bidez gaitasungabetze erabatekoan edo berezian ez aurkitzea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ez eta lan-kontratuko enplegatuen kasuan, zerbitzutik apartatu edo gaitasungabetu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, gaitasungabetua edo horren pareko egoera batean ez aurkitzea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen santzio diziplinariorik edo horren parekorik jaso ez izatea.
- f) Enplegatu publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legezko xedapenak ezarritako baldintzetan.
- g) 2. Hizkuntza-Eskakizuna edo parekidearen jabe izatea, edo hautaketa-jardunbidean zehar egingo diren frogen bitartez gaitasun hori egiaztatzea.

### **Bosgarrena.- ESKABIDEAK AURKEZTEA**

Aukeraketa prozesuan parte hartzeko eskabideak Azkoitiko Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

- a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.
- b) Gainera, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- 1.- NAN fotokopia, edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena beste estatu bateko hautagaien kasuan.
  - 2.- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- Euskararen ezagutza, kasua hala bada, 2. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopiaren bidez edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren baten fotokopiaren bidez frogatuko da. Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzekoa den 64/2008 Dekretu apirilaren 8koak 3.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko konbalidatuak geratzen dira bertan aipatzen diren euskarako ziurtagiri eta tituluak.

Kalifikatuko den hizkuntza-eskakizuna edo goragokoren bat daukaten hautagaiek espresuki alegatu izan beharko dute eskabidean onartua izateko, eta hari erantsirik aurkeztu izango dute dagokion titulua edo ziurtagiria. Horrela, salbuetsiak geratuko dira horretarako egingo diren probak egiteak.

Hala nahi duten hautagaien zatia, 2. hizkuntza-eskakizuna lortzera xedaturiko probak egingo dira, ahozkoak zein idatziak. Proba horiek HAAEEK horretarako seinalaturiko beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiari gertatu zaizkiokeen joan etorriko gastuak, mantenukoak, etab. beraren kontura izango dira.

4.-Era berean, lehiaketa atalean baloratuko diren merezimenduei dagozkien datuak ere adierazi beharko dituzte, behar bezala frogatuak. Laneko esperientzia egiaztatu beharko da dagokion enpresak edo administrazioak egindako ziurtagirien bidez, non zehaztuko baita kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak.

Ez dira baloratuko eskabidean frogatzen edo zerrendatzen ez diren merezimenduak.

Eskabideak behar bezala beteta, Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

### **Fotokopiak, konpultsatutakoak aurkeztuko dira.**

Eskabideak orobat aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak 38.4. artikuluan adierazitako formetarik edozeinetan ere. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak datatu eta zigilatu beharko ditu, eskabideak aurkezteko epearen barruan; horrela bakarrik kontsideratuko da eskabideek erreferentziazko posta-bulegoetan edo erregistroetan entregatu zireneko egunean izan dutela sarrera Azkoitiko Udalaren Erregistro Orokorrean.

Egitezko errakuntzarik hautematen bada edozein unetan zuzendu ahalko da, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo horiek egiaztatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioaren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esan dena.

**Seigarrena.- HAUTAGAIEN ONARPENA.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko Alkate-Lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onetsiko du, kasua hala bada, baztertzearen zergatiak adieraziz. Zerrenda Azkoitiko Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarriko da ikusgai, baita Udalaren web gunean ere ([www.azkoitikoudala.com](http://www.azkoitikoudala.com)).

Onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero onartu edo errefusatu egingo dira, eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda goian adierazitako moduan jarriko da ikusgai.

**Zazpigarrena.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.**

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrez eta ordezkoez osatua egongo da, eta haien izendapena Udalaren Iragarki Taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web gunean ([www.azkoitikoudala.com](http://www.azkoitikoudala.com)) jarriko da ikusgai. Epaimahaia honela eratua geratuko da:

Lehendakaria:

- Kultura departamentuko arduraduna.

Bokalak:

- Hirigintza departamentuko teknikari bat.
- Azkoitiko lantaldeko arduraduna.
- Sailkapen berdina edo goragokoa duen Azkoitiko lantaldeko kide bat.
- . Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat
- .Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat, deialdian kalifikatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatze probak ebaluatze eta horretarako bakarrik, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Lege uztailaren 6koak 99.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Idazkaria:

- Udalekoa edo honek ordezkari ematen dion pertsona.

Probetan, Epaimahai Kalifikatzaileak bidezko baderitza, aholkulari adituen lankidetzak eska dezake dena delako gaietarako.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek uko egin beharko diote esku hartzeari eta, kasu horretan, Alkate-Lehendakariari horren berri eman beharko diote, baldin eta Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak 28. artikuluan



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

jasotako zirkunstantzietakoren bat gertatzen bada haiengan. Era berean, hautagaiek kideak errefusatu ahalko dituzte, Lege bereko 29. artikulua araberan.

Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideek profesionaltasun eta inpartzialtasun printzipioak beteko dituzte. Hala ere, eta horrek espezialitate printzipioaren gainean eraginik ez badu, Epaimahai Kalifikatzailearen osaerak orekatua izan behar du gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumeen eta gizonen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6. artikuluan ezarritakoaren araberan.

Epaimahai Kalifikatzailearen jardunbidean beti jarraituko zaio Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koan organo kolegiatuei buruz jasotzen diren xedapenei.

Epaimahai Kalifikatzailea ezingo da ez eratu, ez aritu, baldin eta kide titularren edo ordezkoen erdiak baino gehiago bertan bildu ez badira, eta, edozein kasutan ere, bertan egon behar dute lehendakariak eta idazkariak. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, hango idazkariak izan ezik, hark ez baitu azken ahalmen hori izango. Erabakiak hartzeko bildutako botoen gehiengoa beharko da; berdinketa gertatuz gero, berriz, lehendakari diharduenaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren araberan, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta aukeraketa prozesu honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

**Zortzigarrena.- AUKERAKETA PROZESUA. LEHIAKETA-OPOSAKETA.**

Aukeraketa prozesuaren deialdia Azkoitiko Udaleko Iragarki Taulan eta Udalaren web gunean ([www.azkoitikoudala.com](http://www.azkoitikoudala.com)) egingo da, azterketen data, ordua eta tokia azalduz.

Aukeraketa prozesuan, ondoko ariketa hauek egingo dira:

**OPOSAKETALDIA**

**LEHEN ARIKETA:** Teorikoa. Egin beharrekoa eta baztertzailea izango da hautagai guztientzat.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Oinarri hauetako Eranskinean ageri diren gaitegiko gai orokor eta espezifikoei buruzko galderei erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen denboran.

Epaimahai Kalifikatzailearen irizpidearen baitan geratzen da ariketa hau egitean zein prozedurari jarraitu finkatzea (test moduko galdera-sorta, gai bat edo batzuk garatzea, etab.), eta, kasua hala bada, gaizki erantzundako galderak nola penalizatu zehaztea.

Lehen ariketa honi hamar (10) puntu emango zaizkio gehienez, eta bost (5) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.

**BIGARREN ARIKETA:** Praktikoa. Egin beharrekoa eta baztertzaileria izango da hautagai guztientzat.

Epaimahai Kalifikatzaileak zehaztutako suposatuta edo kasu praktikoak ebatzi beharko dira eta lanpostuen berezko funtzioekin zerikusia dutenak izango dira.

Bigarren ariketa honi (20) puntu emango zaizkio gehienez, eta hamar (10) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.

**HIRUGARREN ARIKETA.**- Euskara. 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Ariketa hau hautagai guztientzako baztertzaileria izango da eta GAI edo EZ GAI kalifikatuko da.

Ez dute hirugarren ariketa egingo plazari dagokion hizkuntza eskakizuna badutela alde aurretik egiaztatu duten izangaiek; eta hori, Dekretu honetan ezarritakoaren arabera: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Epaimahai Kalifikatzaileak ariketak oinarrietan adierazitako hurrenkera ezberdinez egitea erabaki dezake, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Baldin eta hautagairen bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren, hauta-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Azkoitiko Udalaren Iragarri Taulan eta Udalaren web gunean ([www.azkoitikoudala.com](http://www.azkoitikoudala.com)) argitaratuko du gainditutako hautagaien zerrenda.

Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna berma dadin,





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezzen.

## **LEHIAKETALDIA.**

Epaimahaiak ondorengo merituak baloratuko ditu, baldin izangaiek beren eskaeretan alegatu badituzte eta eskaerarekin batera erantsi beharreko dokumentazioarekin behar bezala egiaztatu badituzte.

— Herri-administrazioan egindako zerbitzuak, deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten postuetan: 0,25 puntu hilabeteko. Lehiaketaldian gehienez 6 puntu emango dira.

## **Bederatzigarrena.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA.**

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko ariketa bakoitzean eta lehiaketaldian lortutako puntuak batuko dira, eta batura horrek finkatuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkera.

Guztiaren kalifikazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Azkoitiko Udalaren Iragarki Taulan eta Udalaren web gunean ([www.azkoitikoudala.com](http://www.azkoitikoudala.com)) argitaratuko ditu gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienekotik gutxienera ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen hautagaia kontratatzeko proposamena egingo du.

Sailkapenean berdinketa gertatuz gero, hurrengo irizpide hauek hartuko dira kontuan, adierazita dauden hurrenkerari erreparatuz:

- a) Puntuaziorik handiena oposizio atalean.
- b) Administrazio Publikoan eginiko lanetan puntuaziorik altuena.

Baldin eta, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxienezko baldintzak betetzen dutenik, lanpostua hutsik lagatzea, hau da, esleitu gabe uztea erabaki dezake.

Hautagai proposatuak probak gainditu dituen hautagaien zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta hogeita (20) egun naturaleko epean ekarri beharko dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezkotzat eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak. Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan gabe, hautagai proposatuek agiriak aurkezten ez badituzte edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituztela ziurtatu ez badute, ezingo dira kontratatuak izan eta haien jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Ondorioz, kontratatuak izateko dituzten eskubide guztiak galduko dituzte, alde batera utzi gabe hasierako eskabidean gezurra jartzeagatik legokiekeen erantzukizuna.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kasu horretan, hautaketa prozesua gainditu dutenen artetik, puntuaketa ordenan hurrengo lekua betetzen duena kontratatzeke proposamena egingo da. Hori baino lehen, beharrezkotzat eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Modu berean jardungo da baldin eta kontratatutako hautagaiak proba aldia gainditzeko ez badute.

Ariketen eta merituen kalifikazioa amaitutakoan, oposaketa faseko ariketa guztiak gainditu dituzten izangaiekin, prozesu osoan (oposizioa eta lehiaketa) lortutako puntuazio handienetik txikienera zerrendatuta, lan-poltsa osatuko da, oinarri hauen aurreneko atalean xedatutakoaren arabera.

**Hamargarrena.- LAN KONTRATUA ZEHAZTEA ETA PROBA ALDIA.**

Organo eskudunak Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko hautagaiarekin lan-kontrata formalizatuko du, betiere aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu dituztenean.

Proba aldiaren iraupena sei hilabete izango da. Denbora horretan efektiboki burutu beharko dira deialdiaren xedeko lanpostuen funtzioak eta, gainera, izaera baztertzailerak izango du.

Prestakuntza eta praktika aldia amaitutakoan eta izangaia bere lanpostura egokitzeari buruz aldeko txosten teknikoak egin ondoren, era finkoan kontratatuko da.

Izangaiaren praktika aldia ebaluatzeko batzorde bat osatuko da honako kide hauekin:

- Kultura Zinegotzia
- Zerbitzuetako Departamentuko Arduraduna
- Kultura Departamentuko burua.
- Udaleko Idazkaria.
- Udaleko Langileen ordezkari bat.

Ebaluazio batzordeak, egokitze jotzen duen laguntza teknikoarekin, praktikak egin behar dituen izangaia bete behar dituen helburuak finkatuko ditu. Aipatu helburuak honako ezaugarriak egiaztatzeke jarriko dira:

Lanpostuaren eginbeharrak burutzeko eta sortzen diren arazoei irtenbidea emateko gaitasuna.

Lana modu arrazionalan eta eraginkorrean prestatu eta antolatzeko gaitasuna.

Pertsona arteko harremanak ezartzeko gaitasuna eta informazioa trukatzeko trebezia.

Ekarpen profesionalerako ekimena eta gaitasuna.

Lanerako gaitasuna eta bere giza gaitasunak eta gaitasun profesionalak hobetzeko interesa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Praktika aldiaren amaieran, ebaluazio batzordeak txosten idatzia landuko du. Txostena aurkakoa bada, haren berri emango zaio praktikatako langileari, hark helburuak ez betetzeko arrazoiak azal ditzan eta egokitzat jotzen dituen alegazio eta oharra aurkeztu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordeak alkateari helaraziko dio bere proposamena.

Baldin eta hautagaiak proba aldia gainditzen ez badu, espedientean dauden txostenak oinarri bezala hartuz eta erabaki arrazoituaren bidez, lan kontratua kalte ordainik gabe iraungitzea erabakiko da eta prozesuko puntu kopuru ordenan hurrengo lekua betetzen duena kontratatzeari ekingo zaio, betiere 3. oinarrian beharrezkotzat eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

### **Hamaikagarrena.- INTZIDENTZIAK.**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta azterketazko lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

### **Hamabigarrena.- INPUGNAZIOAK.**

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahalko dira, Adminisitrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak ezarritako epeetan eta forman.

### **Hamahirugarrena.- LEGERIA APLIKAGARRIA**

Kontuan izan beharko dira beti ere Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dagoen lege xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua; Enplegatu publikoen oinarritzko estatutua erregulatzen duen apirilaren 12ko, 7/2007 legea; Estatuko Administraritzaren Zerbitzu Orokorreko pertsonalaren sarrerako erregelamendu nagusia onartzen duen martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua; urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua eta azaroaren 18ko 16/1997 Legea, eta aplikagarri diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## ERANSKINA

### **GAI OROKORRAK**

1. 1978ko konstituzio espainiarra. Printzipio orokorrak.
2. Espainiarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
3. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Hasierako Titulua.
4. Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1997 Legea, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua (1989-07-28 eta 1997-11-18 Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Funtzionaritza lortzea eta galtzea.
5. Funtzionarioen eskubideak eta eginkizunak.
6. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak arautzen duen Toki-araubideko oinarriak, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua (1985-04-03 eta 1999-04-22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Agirien sarrera eta irteera erregistroa. Agiriak aurkezteko baldintzak.
7. Alkatea eta Plenoaren ahalmenak
8. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa. Prozedura administratiboan interesatuak. Kontzeptua. Ordezkaritza. Pluraltasuna. Identifikazioa. Jardunbide ahalmena.
9. Hiritarren eskubideak.
10. Administrazio-jardunbide orokorraren faseak. Administrazio isilbidea.
11. Administrazio jardunbiearen amaiera eta epeak. Zenbatzeak. Epeak luzatzea.
12. Jakinarazpena. Jakinarazpenen praktika.

### **GAI ESPEZIFIKOAK**

- 1.- Laneko arriskuen prebentzioa. Norbera Babesteko Ekipamenduen Balorazioa, aukera egin eta erabiltzerakoan (89/656/EE Kontseiluaren Zuzentaraua, 1989ko azaroaren 30ekoa).
- 2.- Laneko arriskuen prebentzioa. Igeltsero eta zimendatze lanetan kontuan izan beharreko segurtasun-irizpideak.
- 3.- Igeltsero-laneko erreminta eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa. Oinarrizko nozioak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 4.- Elektrikari-laneko erreminta eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa. Oinarrizko nozioak
- 5.- Margotze-laneko erreminta eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa. Oinarrizko nozioak
- 6.- Iturgintza-laneko erreminta eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa. Oinarrizko nozioak
- 7.- Harotz-laneko erreminta eta tresnak. Erabilera eta kontserbazioa. Oinarrizko nozioak
- 8.- Tabikeen zuinketa eta eraikuntza. Exekuzio agindua, erabili beharreko materialak.

Azkoitian, 2010eko ekainaren 25ean.  
ALKATEAK,